

2012 · UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBA

Geografia

- BATXILERGOA
- LANBIDE HEZIKETA
- GOI MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK

Azterketa

Kalifikazio eta zuzenketa irizpideak



EUSKAMPUS
Nazioarteko Bilkaintasun Campus
Campus de Excelencia Internacional

en la red de



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK
2012ko UZTAILA
GEOGRAFIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD
JULIO 2012
GEOGRAFÍA

Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.

Frogaren balorazio orokorra 10 puntukoa izango da, honela banatua:

- 1. Ariketa praktikoa:** 4 puntu.
Kontuan hartuko da mapak ondo egitea eta aurkeztutako materiala ulertzea eta era egokian interpretatzea.
- 2. Gai baten garapena:** 4 puntu.
Ezagutza-maila eta erlazioak egiteko gaitasuna hartuko dira kontuan.
- 3. Kontzeptu geografikoen definizioa:** 0,5 puntu bakoitzak.
Kontzeptu bakoitza definitzeko, gehienez 5 lerro erabil daitezke.
Kontzeptuak argi eta zehatz definitzea hartuko da kontuan.

Este examen tiene dos opciones. Debes contestar a una de ellas.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.

La valoración total de la prueba será de 10 puntos que se repartirán del siguiente modo:

- 1. Prueba práctica:** 4 puntos.
Se valorará la correcta elaboración de los mapas, y la comprensión y correcta interpretación del material presentado.
- 2. Desarrollo de un tema:** 4 puntos.
Se valorará el nivel de conocimientos y la capacidad para establecer relaciones
- 3. Definición de conceptos geográficos:** 0,5 puntos.
Deben ser definidos en una extensión que no sobrepase las 5 líneas.
Se valorará la claridad y precisión de las definiciones.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO HAUTAPROBAK

2012ko UZTAILA

GEOGRAFIA


A AUKERA

PRUEBAS DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD

JULIO 2012

GEOGRAFÍA


1. Euskal Autonomia Erkidegoko ibai nagusien eta isurialde hidrografikoen kokapen-mapa. (4 puntu)



2. Espainiako hirigintza-prozesu historikoaren sintesia. Industrializazioaren garaiko eta industrializazioaren osteko hiria. (4 puntu)
3. Kontzeptu hauen definizioa (gehienez ere, bakoitzeko 5 lerro):
 - Tolestura-mendikatea (0,5 puntu)
 - Ekintza-gunea (antzikloia eta depresioa (borraska)) (0,5 puntu)
 - Nekazaritzako ustategia (0,5 puntu)
 - CBDa (Central Business District) (0,5 puntu)



1. Espainiako demografia-erregimenen bilakaeraren grafikoari buruzko iruzkina (1886 urtetik 2009 arte). (4 puntu)



Iturria: INE

2. Euskal Autonomia Erkidegoko erliebe-unitate nagusien sintesia. (4 puntu)
3. Kontzeptu hauen definizioa (gehienez ere, bakoitzeko 5 lerro):
- Uren muga-lerroa / Uren banalerroa (0,5 puntu)
 - Zentsua / Errolda (0,5 puntu)
 - NPB (Nekazaritza Politika Bateratua) (0,5 puntu)
 - Konurbazioa (0,5 puntu)



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

GEOGRAFIA

Azterketaren balorazioa egiteko, kontuan hartuko da ea galdera praktikoan, galdera teorikoan eta kontzeptuen definizioan zuzen erantzuten zaion galdetzen denari.

Irizpide orokorrak

Bereziki kontuan hartuko da:

- kontzeptuen argitasuna
- idazkeraren zuzentasuna eta heldutasuna
- erlazionatzeko gaitasuna
- elementu eta faktoreak sailkatzeko gaitasuna
- erantzun ordenatua egituratzea
- mapa/lauki/taula edo grafikoen iruzkina erlazionatzea eta kartografiako kokapen zuzenak egitea.
- ezagupen-maila

Irizpide espezifikoak

A AUKERA

1. galdera (praktikoa): puntuazioa 0/4.

Kontuan hartuko da bi isurialde hidrografikoak (atlantikoa eta mediterraniarra) ondo kokatzea eta ondorengo ibai hauek:

- Atlantiko isurialdea: Bidasoa, Urumea, Oria, Urola, Deba, Artibai, Lea Oka, Nervión, Ibaizabal eta Kadagua.
- Mediterraneo isurialdea: Zadorra, Baias, Arakil, Ega, Ayuda eta Inglares.

2. galdera (teoria): puntuazioa 0/4.

Galdera hau baloratzean kontuan hartuko dira urbanizazio prozesuaren bi epe hauetan hirien berezko ezaugarriak, fase desberdinen ezagutza eta hirien hazkundera errazten duten faktoreak.

- Industria-hiria: Industrializazioaren hasieratik, XIX. mendean, 1970eko hamarkadaren erdialdeko krisialdira arte. Urbanizazio tasa hazkundera handia. Lau fase:
 - XIX. mendeko erdialdera arte: Hirietan kontzentrazio demografiko baxua. Urbanizatzeko faktore nagusiak: probintziaren burutasuna eta itsas-merkatariza.
 - XIX. mendeko erdialdetik Gerra Zibilera arte: Hiri hazkundera handia. Hazkunderaren faktore nagusia: Nekazal esparrutik industria-hirietarantz mugimenduak bultzatu zituen industria.
 - Gerra Zibila eta Gerraostea: Eskasiak eragindako hiri hazkundera moderatua, nekazal-exodoaren gutxitzea. Oinarrizko industriaren ezartzeak lagundu zituen hirietan emandako hazkundera.



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

- Garapen fasea, 1960ko hamarkada eta 70eko hamarkadaren hasiera: hiri eta ekonomi hazkunde handiagoa industria-garapenari esker eta, neurri txikiagoan, hirugarren sektoreko jardueri esker.
- Industrializazio osteko hiria: 1980 eta 1990 urteetako hiria
 - Urbanizazio tasaren dezelerazioa.
 - Hirigintza bultzatzen zuten faktoreetan emaniko aldaketak: Industriak eragin txikiagoa dauka eta hirugarren sektoreko jarduerak handiagoa.
 - Hiri handietan emandako kontzentrazio demografikoaren geldiuena. Urbanizatzeko prozesua hiri ertain eta txikietarantz bideratzen da.
 - Urbanizazio barreiatua bezalako fenomenoek eragindako urbanizatutako arearen handitzea.

3. galdera (kontzeptuen definizioa): puntuazioa 0/0,5 kontzeptu bakoitzeko.

Definizioek gehienez 5 lerrokoak izan behar dute; beraz, sintesi-gaitasuna kontuan hartuko da.

Kontzeptuen definizioa hemen adierazten denaz bestelakoa izan daiteke, eta, hala ere, balekoa izan. Orientabide gisa balio dezakete hemen ematen diren definizioek:

Tolestura-mendikate: Aro Sekundario eta Tertiarioan itsas arroetan utzitako material sedimentarioen tolesturaren ondorioz orogenesi alpetarrean sortutako mendiak.

Ekintza-gune (antizikloi eta depresio (borraska)): Presio altuko (antizikloi) eta behe-presioko (depresio) gunea, estadistika-maiztasunean leku jakin batean kokatu egiten da eta bere inguruko aire-masak eta fluxuak bideratzen ditu

Nekazaritza-ustiapena: Jabe edo enpresari bakar baten erantzukizunaren menpe dagoen nekazaritzako ekoizpen-unitatea.

CBD: Central Business District (Negozio Barruti Nagusia), Merkatal kontzentrazio handia, merkataritza espezializatua, jolas establezimenduak eta finantza-jarduera nabarmen dagoen hiri erdiko barrutia.



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

B AUKERA

1. galdera (praktikoa): puntuazioa 0/4

Kontuan hartuko da:

- Bi kurben baterako deskribapena haien esanahiarekin.
- Gertaerarik aipagarrienak nabarmendu (Jaiotzan, 1930-1956 tarteko jaitsierak, 1975 eta 1998 urteen artean beherakada zorrotza, 1956-1965 arteko jaiotzaren berreskurapena; 1998-2008 arteko berreskurapen xumea. Hilkortasunean, 1918ko igoera bortitza, Gerra Zibileko urteetako igoera, 1982. urtetik, biztanleriaren zahartzea dela medio, igoera xumea. Berezko hazkundean 1918 eta Gerra Zibilean tasa negatiboaren agerpena, 1920eo hamarkadako eta 1950eko hamarkadako erdialdetik 1960ko hamarkadako erdialdera arteko hazkunde nabarmena. 90eko urteetako zerotik hurbileko hazkundera, .XXI. mendeko lehen hamarkadako berreskurapena.
- Grafikoan agertzen diren faseak jartzea, XX. mendeko hasierara arteko erregimen zaharra, 1900 eta 1975 arteko trantsizio demografikoa, oraingo erregimena, trantsizio-ostekoa, 1975. urtetik aurrera
- Azalpen-arrazoien aipamena: kolera (XIX. mendea) eta gripe izurriteak (1918), Gerra Zibila, Haur-hilkortasunaren eta, orokorrean, hilkortasunaren kontrako borroka, bizi-itxaropenaren luzatzea, jaiotzaren kontrola, bizi-mailaren hobetzea, emakumearen parte hartzea lan-merkatuan, e.a.
- Grafikoaren iruzkinarekin eta trantsizio ereduarekin emandako erantzunak daukan erlazioa bereziki kontuan hartuko da.

2. galdera (teoria): puntuazioa 0/4

Bi unitate nagusi: Eusko mendiak eta Ebro sakonunea.

Eusko mendiak; Deskribapena, desberdintzen diren unitatearen arabera, modu desberdinetan egin daiteke. Batxilergoko eskuliburuetan bereizten dira:

- Kostalde aurreko mendikatea.
- Kantabriar-Mediterraniar uren mugalerroen mendiak.
- Hegoaldeko arro eta mendizerrak
- Unitate hauen kokapenaren, material nagusien, modelatuaren eta altitudeen deskripzio laburra eman behar da.

Aurreko deskribapenaren bezalako balioa daukana honako hau da:

- Kostaldeko mendikatea.
- Kostalde aurreko mendikatea.
- Bost Hirietako mendigunea
- Erdiko-ibaibideetako mendi eta haranak
- Kantabriar-Mediterraniar uren mugalerroen mendikatea
- Lautada
- Araba erdiguneko mendizerrak
- Mendebaldeko haran eta mendizerrak
- Trebiñoko arroa.
- Hego-ekialdeko haran eta mendizerrak
- Toloño-Kantabria-Joar Mendizerrak



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

Baita, unitate hauen kokapenaren, material nagusien, modelatuaren eta altitudeen deskripzio laburra ere eman behar da.

Kontuz: Deskribapen biak baliozkoak dira.

Ebroko sakonunea: Arabako Errioxan dagoena.

3. galdera (kontzeptuen definizioa): puntuazioa 0/0,5 kontzeptu bakoitzeko.

Definizioek gehienez 5 lerrokoak izan behar dute; beraz, sintesi-gaitasuna kontuan hartuko da.

Kontzeptuen definizioa hemen adierazten denaz bestelakoa izan daiteke, eta, hala ere, balekoa izan. Orientabide gisa balio dezakete hemen ematen diren definizioek:

Uren muga-lerro/Uren banalerro: Bi arro hidrografiko banatzen duen lerroa.

Zentsu-Errolda

Zentsu: Denbora jakin bateko estatu bateko biztanle guztien zenbatzea beren ezaugarri demografikoak, kulturak, ekonomikoak eta gizartekoak kontuan hartuta.

Errolda: Urtarrilaren 1ean urtero eguneratzen den udalerrri bateko biztanleriaren kontaketa bere zenbait ezaugarri kontuak harturik.

NBP (Nekazaritza Politika Bateratu): Europar Batasunaren nekazaritzako politika da. Erkidegoaren politikarik garatuena eta zaharrena da, 1960ko hamarkadatik dator. Bi oinarri dauzka, Merkatutarako politika eta Egituratarako politika.

Konurbazio: Hiri aglomerazio batean batu arteko bi hiri edo gehiagoren hazkunde paraleloa.